

Larruneko hedagailuan eragin suteak frantses telebista gabe utzi du Iparraldea

Litekeena da aste bukaera osoan suteak egindako kaltea konpontzerik ez izatea

Hur Gorostiaga / Azkaine

Sute batek Larruneko kaskoan dagoen TDFeko telebista eta irrati errepikagailua suntsitu zuen atzo goizaldean. Hastapenean nahigabeko sutea zela uste bazen ere, poliziako ikerlariek Larruneko kaskoan atzemandako materialen arabera nahirara egindako sabotajea izan zela adierazi zuen. Ipar Euskal Herriko biztanleak telebista eta irrati frantsesik gabe egon ziren egun osoan, Zuberoaldekoak salbu.

SUTEA atzo goizeko ordubata inguruan abiatu zen, Frantziako telebista eta irrati azpiegiturako TDF zerbitzuek Larruneko kaskoan duten errepikagailuetan. Donibane Lohizuneko Suhiltzaileak deitu eta goizeko hiruetan lortu zuten suaren itzaltzea.

Polizia berehala hurbildu, eta errepikagailuen zentrua inguratzen duen hesian zulo bat egina izan zela ohartu ziren. Urrunago, berriz, erregai bati su emateko hari bat atzeman zuten. Baionako Polizia Judizialak hartu du aferaren segimendua.

Sabotajearen ondorioz, irrati eta telebista katea frantsesik gabe iratzarri zen atzo Ipar Euskal Herriaren zatirik handiena, eta hala iraun zuen egun osoan zehar. TDFeko teknikariak armada-ko teknikarien laguntzaz berehala lanean hasi baziren ere, zenbait iturriren arabera telebista eta irrati emankizunen etenak asteburu osoan iraun dezake. Aitzitik euskarazko irratiak eta telebista



Larruneko hadagailuaren irudi bat, erasotua izan ostean.

Probokazioa

■ ■ ■ Panpi Dirassar Abertzaleen Batasuna alderdiko bozeramaileak «manifestaldiaren bezperako probokazio bat» izan zitekeela adierazi zuen atzo

bai eta gaztelerazkoak ohi bezala atzeman zitezkeen. Izan ere, Hegoaldekoek Jaizkibeletako errepikagailua erabiltzen dute, eta Iparraldekoek Baigura, Jara eta Magadalenako errepikagailuak. Zuberoa aldean ez zen halako arazorik izan, Pic du Mditik telebista eta irrati Jaratik jasotzen baitute.

Bart ez zen oraino jakina nork egin zuen ekintza. Polizi iturriek IK, ETA edo gazteen sabotaje ekintzen hipotesia aipatu arren, materiala azertu ostean hipotesia baztertu zuten. Parisek egindako azken atxiloketei buruzko erantzun bat izan liteke. Hegoaldean behin baino gehiagotan egin izan dituzte

halako ekintzak. Frantzian ere ARBko bretoinek 1974 urtean halako ekintza indartsu bat egin zuten.

Beste iturri batzuk, aldiz, gerla zikinaren ekimen bat, Euskal Departamenduaren kontrakoek ekimenez jotzen zuten, justuki Euskal Departamenduaz gehien mintzatu behar zen unean gertatu delako. Irrati eta telebista publikoek emankizun bereziak zituzten iragarriak manifestaldiaz aitzeko. Panpi Dirassar Abertzaleen Batasuneko bozeramaileak «manifestaldiaren bezperako probokazio bat» izan zitekeela adierazi zuen bart. «Ikusi behar da nori egin dion fagore eta nori kalte» adierazi zuen.

Sorzabal Espainiaratzearen kontrako ekimenak ugaltzen ari dira presondegietan eta kalean

■ Gaur manifestaldia egingen dute Irunen haren egoera salatzeko, AABek egindako deialdiari jarraituz

Erredakzioa / Baiona

IRATXE SORZABAL preso irundarraren kanporatze posiblea salatzeko hainbat ekimen sortu dira egunotan presondegietan, bai eta Euskal Herriko karriketan ere. Fresnesen egonik, bertako presoek txandakako gose greba abiatua dute azken

asteen, eta Sorzabalek berak 12 egun beteko ditu gaur baraurik. Atzo Lannemezaneko presoek abiatu zuten txandakako gose greba, eta Fleuryn joan den astean hasi zuten Idoia Lopez Riaño eta Laurence Schlechtek bost eguneko txanda bete ondoan, bertze bik abiatuko dute. Fleuryn ere, Sorzabalen egoe-

raz informatzeko paperak banatu dituzte presoen artean. Sorzabalek Heldu den urriaren 12an jakinen du deiauzitegiak ezarriko dion zigorraren berri. Lehenago zigorra baieztatzen badio, berehala Espainiaratuko dute segurrik ere.

AABek manifestaldirako deia egin dute gaurko, eguer-

ditan San Juan plazan. Manifestariak Euskal Herrian bizitzeko eskubidea aldarrikatu eta «Frantziak legez kanpo egiten dituen kanporatzeak» salatuko dituzte. Manifestaldia bukatu eta zortzi eguneko gose greba abiatuko dute, plazan berean ezarriko duten etxola bat baliaturik.

Mirentxu Gimon eta Bertrand Grimault espetxeratzeko agindu du epaileak

■ Orotara, hamaika pertsona presondegiratu dituzte ebatsitako lehergailuen aferan

Erredakzioa / Baiona

LAURENCE LEVERT epaileak Mirentxu Gimon 32 urteko hendaiarra eta Bertrand Grimault 25 urteko bretoinaren presondegirtzea agindu zituen atzo, irailaren 28an Britainia-ko Plevinen izan zen 8 tonako lehergailuen ebas-kearekin zerikusia dute-lakoan.

Gimoni lehergailuak gordetzeko lokal baten bitartekaritzan aritzea leporatu dio inkerketa burutu duten polizi zerbitzuek. Grimault, berriz, lapurketaren aitzineko egunean ETako kide batzuekin argazkitan aterata dutela aditza eman zuten polizi iturrietatik.

Orotara hamaika pertsona dira Plevineko lehergailu ebasketaren ondoren presondegiratuak izan diren pertsonak. Horieta-rik sei euskal herritarrek dira, eta bortz bretoindarrak. Guztiei gaixtagin elkarteko kide izatea leporatu diete eta preso egon beharko dute auzira bitartean, edo baldintzapeko askatasuna lortu bitartean.

Bi euskal preso aldatu dituzte espetxez Frantzian

Erredakzioa / Baiona

FRANTZIA-N bi euskal preso espetxez aldatu dituzte egunotan, Amnistiaren Aldeko Batzordeek jakitera eman dutenez. Duela gutxi espetxeratu zuten Sylvie Artola Versailles-era eraman dute Freury Merogis kartzelatik; eta, Alberto Arri Pascual Douaitik Bapaumera. Artola euskal preso bakarra izango da Versaillesen. Frantzian 23 espetxetan daude sakabanatuta 81 euskal presoak.

Bestalde, Igor Angulo Iturrarte preso Soto del Realetik Curtiseko espetxera eraman dute. Izan ere, Angulo A Coruñan epaituko du epaimahai militar batek intsumiso izateagatik.